## –Iurre Goia

Euskal Herriak erreka asko dauzka. Erreka hauek lotu itzazu bakoitza bere luzera eta ibaiadar baten izenarekin:

| | |
|---|---|
| ATURRI | 69 km, Ezkurra |
| NERBIOI | 75 km, Ibaizabal |
| BIDASOA | 335 km, Errobi |
| ORIA | 66 km, Asteasu |
| UROLA | 46 km, Errezil |
| DEBA | 58 km, Antzuola |

## Gurutzegrama

**1.** Diru eta ondasunei atxikimendu handia izatea.

**2.** Erakunde, enpresa, pertsona eta abarren ezaugarria grabaturik duen tresna.

**3.** Bertsolarien huts egiteetako deiturak.

**4.** Korrespondentziaren jasotze-banatze eta garraio-lana burutzen duten eraikina.

**5.** Zaldi gainean ibiltzeko boten atzealdean jartzen den metalezko pieza.

**6.** Oinarrizko garrantzia duena, Iparra, Hegoa, Ekialdea eta Mendebaldea dira.

**7.** Zerbait edo norbaitek leuntasuna galdu.




## Txisteak

Bixente ,New Yorken zegoela ,telebista erosi zuen familiari ekartzeko.

-Han,zuen Euskal Herrian ,ez al dago telebistarik ala?-galdetu dio saltzaileak.

-Bai,noski;baina askoz politagoak dira hemengo programak.

Maistra bat hegaztien ohiturak azaltzen ari zitzaien ikasleei.

-Iparraldean hotz denean –esan zien–,Euskal Herritik pasatu eta hegoaldera,Espainiara, joaten dira eguzki bila. Zeintzuk dira saldoan eta presaka hegoaldera joaten diren hauek?

Berehala erantzun zion betiko orojakileak:

-Turistak!

## Asmakizunak eta Iragarkizunak

**1.** Zer da behiak egiten duen lehen gauza eguzkia irtetean?

**2.** Zer egiten da Austriako herrietan eguzkia sartzean?

**3.** Gora igotzeko,behera jaisteko, zango duzu etxean, bat seguru asko.

**4.** Elurrak nauka, kareak ere bai, Azukrea goxoa, eta atzak, noski.

**5.** Haizea nora,hostoak hara, Baita ni ere horretarako nago eta.

**6.** Haginak ditu eta ongi zaintzen du etxea; Ez du egiten horzka, are gutxiago zaunka.

**7.** Sarri berandu uso zuria, Hegorik bako mezularia, Mihirik gabeko hizlaria.

**8.** Zer dela eta, zer dela eta, Kutxa txiki bat aizkoraz betea?

**9.** Zer dela eta, zer dela eta, Egunean okelaz beterik, gauean ahoa zabalik.

**10.** Zein da etxean isilik eta basoan kantatzen duena?

**11.** Mendi bien artean erdian ibarra eta usain txarra sarri. Hor ez du eguzkia ageri. Handi nahiz txiki, Argal nahiz gizena, esan dizut izena.

## Erantzunak

**1.** *Itzala,* **2.** *Ilunduz,* **3.** *Eskalera,* **4.** *Kolore zuria,* **5.** *Haize errota,* **6.** *Giltza,* **7.** *Eskuitza,* **8.** *Ahoa,* **9.** *Zapatak,* **10.** *Aizkora,* **11.** *Ipurdia.*